

Otoitza Kreazioaren Aldirako (2020-09-01 / 10-04)

Biziaren Kreatzailea, zeure hitzaz. landareak eman zituen Lurrak, eta haiek, fruitua eman zuten mota orotako hazia eta arbolak. Orobat eman zituen Lurrak ibaiak, mendiak, minerala, itsasoak eta oihanak, biziaren sostengu.

Guztien begiak zenituen zeuri begira bizidun oroaren premiak asetzeko. Eta aldiaren luzeran barna Lurrak eutsi dio biziari. Planeten egun eta aroen zikloekin, eraberritzearekin eta hazkundearen, eskua zabaldu zenuen sorkariei janaria emateko unean unekoa.

Zeure Jakinduriaz, Sabbath bat ezarri zenuen; aldi bedeinkatu bat, guk atsedean hartzeko, eman duzun guztiagatik zuri eskerrak agertzeaz batera; aldi bat, gu neurrigabeko kontsumotik liberatzeko; aldi bat, bide emateko Lurrak eta sorkari guztiek ekoiztearen zamatik atsedean har dezaten.

Baina, egun hauetan, planeta beraren mugak baino harago eramaten ari da gure bizitza. Gure hazkunde-beharra, eta amairik gabeko gure ekoizpen eta kontsumo-zikloa ahitzen ari dira gure mundu hau. Oihanak agortzen ari dira, lurra lehortzen, sorok huts egiten dute, basamortuak handitzen ari dira, itsasoak azidotzen, ekaitzak bortitzago ari dira bilakatzen. Ez diogu utzi Lurrari Sabbatha gordetzen, eta borrokan ari da Lurra nola eraberrituko.

Kreazioaren Aldi honetan, eskatzen dizugu: eman diezazugula adorea geure planeta honentzat Sabbath bat ospatzeko. Indartu gaitzazu fedez zure arduraren konfiantza izateko. Arnastu ezazu gure sormena emana duguna partekatzeko. Irakatsiezaguzu premiazko dugunarekin konformatzen. Eta Lurrarentzat Jubileu bat aldarrikatzen dugun honetan, bidal ezazu zeure Espiritu Santua kreazioaren aurpegi zabala eraberritzeko. Kreazio osoari Berri Ona hots egitera etorri zen Haren, Jesu Kristoren, izenean. Amen.